

## A.7.2. TIBURZIO ANITUA II

A.7.2. TIBURZIO ANITUA II

Azalera: 25.324 m2

I. Ordenazio-Irizpideak eta Helburuak

Tiburzio Anitua, Ziriako Agirre eta Bustindui kaleek mugatzen dute eremu hau.

Eraikuntza linealak dira, hegoalderanzko mendi hegalean garatuak, beheko muga gisa trenbidea dutenak.

Eremu honetatik kanpo geratzen da 108 01 Asola-Igartza Jarduketa Integratua, horri dagozkion zehaztapenak dagokion hirigintza fitxan jasotzen dira.

Lehendik dauden eraikuntzak finkatzeaz gainera, hau proposatzen da zona honetan:

* Eskailera mekanikoen bidez eratutako bideak garatzea, zona altuetaranzko irisgarritasuna hobetzeko.

II. Hirigintza-Erregimen Orokorra

Kalifikazio Globala:

O-CG-01 "Kalifikazio Globala", Ordenazioko (I. Liburukia) V. Planoaren araberakoa.

Eraikuntzaren Baldintza Partikularrak:

Egungo eraikinak, ordezterakoan, O-AL-AO-1 eta O-AL-AO-2C "Lerrokadurak eta Sestrak. Ordenantza Eremuak ", XII. planoetan zehazturiko lerrokadurei eta sestrei egokitu beharko dira, eta 2/2006 ELH Legearen xedapenak kontuan hartuta Hirigintza Arau Orokorrei egokitu.

Erabilera Baldintza Partikularrak:

Eremuaren erabilera esanguratsuena Egoitza erabilera da: Hirigintza Arauen agirian 8.3.07. Artikulua.- Egoitza erabilera (6. erabilera).

III. Ordenazio Xehatua

Eremu honetan xehatutako eremu-banaketa baldintzak, O-CP-01 "Kalifikazio Xehatua", Ordenazioko (I. Liburukia) VII. Planoan ezarritakoari egokitu beharko dira.